

Eutsi segurtasunari!



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD



Eutsi segurtasunari!



JARDUERAREN IZENA:

Eutsi segurtasunari!

NORENTZAT:

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak.

IRAUPENA:

Ordubete.

JARDUERAREN XEDEAK:

- Ibilgailuetan haurrak eusteko tresna homologatuak erabiltzearen onurei buruz gurasoak sentsibilizatzea.
- Familia-bidaietan neska-mutilak eusteko gailuekin babestearen beharrari buruz hausnarketa egitea.


BEHARREZKO BALIABIDEAK:

- Arkatzak.
- Ikasle bakoitzarentzat bi aldeetatik inprimatutako fitxa.





Eutsi segurtasunari!



JARDUERAREN ERABILERA:

Adin honetan, gurasoak sarritan kexatzen dira seme-alabak autoan eramaten dituztenean etengabe gatazka sortzen direla uhala edo dagokion segurtasun-gailua erabiltzeagatik.

Egia da gurasoek segurtasun pasiboaren gailuak behar bezala erabiltzera behartu ahal dituztela, baina, zalantzarik gabe, hobe da umeez zergatik erabili behar dituzten jakitea.

Beste batzuetan, gurasoak dira seme-alabak hazten diren neurrian segurtasun-neurriekiko sentsibilitatea murrizten dutenak. Trafiko-istripuetako ondorioek, berriz, adin txikikoak babesten jarraitu behar dugula gogorarazten digute.

Jarduera honen bidez, ikasle berak bere gurasoak sentsibiliza ditzake eta gogoraraz diezaieke familiaren joan-etorriak egiten dituztenean segurtasuna mantendu behar dutela.

JARDUERAREN TESTUINGURUA:

Jarduera hau umeez testuak ekoizteko estrategiak transferitzea eta eguneroko egoeretatik testu propioak eratzeko testuinguruan kokatzen da.

Zehatz-mehatz esanda, idatzizko komunikazioaren eremuan, jarduera honekin honakoa lortu nahi da: umeez idazketa gizarte-harremanetarako eta informazioa nahiz ezagutzak lortu eta berriz moldatzeko tresna bezala balora dezatela.


JARDUERAREN GARAPENA:

Jarduera ikasgelan garatuko da.

Lehenengo fasean, irakaslea aulkitxo eta segurtasun-uhalen erabilera aztertzen saiatuko da, beti erabiltzen ote duten aztertuko du, etab. Ikasleek esandako edozein informazio onartuko du, ondo edo gaizki ote dagoen adierazi gabe.

Ondoren, ikasle bakoitzari fitxa banatuko dio, informazioa irakurtzeko eta bide-segurtasunari buruzko bost gomendio baliogarriak idazteko.

Fitxa idatzi ostean, bere familiari entregatuko dio.



ADINGABEAK GARRAIATZEKO ARAUDIA

9 ESERLEKURA ARTEKO IBILGAILUAK

135 cm edo gutxiago
neurtzen duten adingabeak



135cm


Atzeko eserlekuetan: haurrak
lotzeko sistema homologatuekin.



SALBUESPENAK:

- ibilgailuak atzeko eserlekurik ez izatea.
- atzeko eserleku guztiak okupatuta egotea, lotzeko sistema homologatuak daramatzaten adingabeekin.
- atzeko eserlekuetan haurrak lotzeko sistema guztiak ezin instalatu ahal izatea.

135 cm baino gehiago
neurtzen duten adingabeak



135cm

Segurtasun uhalarekin aurreko
eta atzeko eserlekuetan.



HOMOLOGATUTAKO AULKI MOTAK

AULKIAK PISUAREN ARABERA

ECE R4,4/04 HOMOLOGAZIOA



0-13 Kg
0 eta 0+ taldeak



9-18 Kg
1. taldea



15-36 Kg
2. eta 3. taldeak

AULKIAK ALTUERAREN ARABERA

(I-SIZE) ECE R129 HOMOLOGAZIOA

